

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

GAZTERIAREN FORU ERAKUNDEA

Gazteentzako berrikuntza proiektuetarako dirulaguntzen 2024ko deialdia

Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 28ko 57/2021 Foru Dekretuaren bidez, Gazteriaren Foru Erakundearen dirulaguntzak norgehiagoka eta lehia libre bidez emateko oinarri orokor arautzaileak onetsi ziren.

Gazteriaren Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluak 2023ko abenduaren 5eko bilkuran onetsi zuen gazteentzako berrikuntza proiektuetarako dirulaguntzen deialdi hau oinarri orokorren eta hurrengo ataletan ezarritakoaren mende egongo da.

1. Deialdiaren xedea

Deialdi irekia da, norgehiagoka bidezkoa, Arabako Lurralde Historikoan edo Trebiñuko enklabeen taldean edo banaka sortutako gazte proiektu berritzaileak garatzeko laguntzak ematekoa.

Deialdi honen helburua da Arabako gazteen parte-hartze aktiboa bultzatzea eta sustatzea, bai eta gazteek gazteentzat egindako proiektuak garatzea ere. Proiektu horiek beren ingurunea inplikatu behar dute eta interes publikoko eraldaketa sozialeko prozesuak bultzatu.

Laguntza poltsa horren helburua izango da 18 eta 30 urte bitarteko gazteen banakako edo taldeko ekimen berritzaileak babestea, garapen pertsonala eta komunitarioa bultzatzeko, gazteen ahalduntzea bultzatzeko eta Arabako Lurralde Historikoko bizitza soziala, ekonomikoa eta kulturala aberasteko. Gazteak sustatzen dituzten proiektuak babestuko dira, sormenerako, berrikuntzarako eta gizarte eraldaketarako duten gaitasuna aitortuz, bai eta etorkizuneko ekintzailatza prozesuetarako ikasteko balio dutenak ere.

40.000 biztanle baino gutxiagoko Arabako toki erakundeetan egiten ari diren edo egingo diren proiektuei eta ideiei 15 puntu gehiago emango zaizkio balorazio teknikoan.

2. Onuradunak

Proiektuak taldekoak edo banakakoak izan daitezke.

2.1. Honako baldintza hauek betetzen eta egiaztatzen dituzten talde sustatzaile onuradunak:

a) Gutxienez 18 urte bete dituzten eta deialdi honetarako eskabidea egiteko unean 31 urte bete ez dituzten 3 pertsonak osatutako taldeak, elkarte edo enpresa gisa eratuta egon gabe eta, beraz, nortasun juridiko propiorik izan gabe, interes sozial publikoa duen eta deialdiaren xedearekin bat datorren proiektu edo ideia bat egitea proposatzen badute.

b) Eskaera egin duen kolektiboaren kide bakoitzak bere gain hartuko ditu, modu solidarioan, exekuzio konpromisoak eta dirulaguntzaren zenbatekoa.

c) Talde sustatzaileko kideen bi heren, gutxienez, Araban edo Trebiñuko enklabean erroldatuta egongo dira.

2.2. Baldintza hauek betetzen eta egiaztatzen dituzten pertsona fisiko onuradunak:

d) 18 urte beteta baina 31 urte bete ez dituen pertsona, Araban edo Trebiñuko enklabean erroldatua, elkarte edo enpresa bat ordezkatzeko ez duena eta, beraz, nortasun juridiko propiorik gabekoa.

Talde-idea bat izatea, talde sustatzaile batek eskaeran adierazia, proiektu bakoitzaren balorazio teknikoan 10 puntu gehigarri ematen ditu. Bestalde, talde edo pertsona bakoitzak gehienez bi proiektu aurkez ditzake deialdi honetara.

3. Diruz lagundu daitezkeen proiektu eta gastuak

3.1. Diruz lagun daitezkeen proiektuak:

Deialdi honen bidez laguntzak eman ahal izango zaizkie batez ere Arabako Lurralde Historikoko edo Trebiñuko enklabeko 14 eta 30 urte bitarteko gazteei zuzendutako proiektuei, baldin eta proiektu horiek 18 eta 30 urte bitarteko gazteek sustatzen badituzte eta 2024ko urriaren 31 baino lehen amaitzen edo gauzatzen badira.

Lehendik ez dagoen ekimen berri bat izan behar du, nahiz eta hasita egon ahal izango den deialdi hau eskatzeko epea baino lehen, eta betiere epe horren barruan amaitzen bada.

Proiektua nagusiki Araban eta/edo Trebiñuko enklabean garatu behar da. Nolanahi ere, askatasun osoz errepikatu ahal izango da beste lurralde eremu batzuetan.

Aurkeztutako ekimenak eremu hauetakoak izango dira: gazteen emantzipazioa, prestakuntza eta ahalduntzea, parte hartzeko sare egonkorrek sortzea, gazteen arteko lankidetzak eta trukea, gazte informazioa, artea eta kultura, ingurumenaren kontserbazioa eta jasangarritasuna, integrazioa eta genero berdintasuna, immigrazioa, gizarte ekintzaitza edo kulturartekotasuna. Arlo horiez gain, gazteen intereseko beste eremu batzuetan oinarritutako beste proiektu batzuk ere baloratu ahal izango dira.

Gazteriaren Foru Erakundeak, bere teknikarien bidez, proiektuaren jarraipena egingo du, eta bidelagun izango da.

3.2. Diruz lagundu daitezkeen gastuak:

a) Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira diruz lagundutako jardueraren izaerarekin argi eta garbi bat datozenak, behar-beharrezkoak direnak, proiektua gauzatzean egiten direnak eta, nolanahi ere, dirulaguntza justifikatzeko adierazitako data baino lehen benetan ordainduta daudenak. Proiektua garatzeko behar diren materialak, ekipamendua edo beste azpiegitura motaren bat erosteko edo alokatzeko gastuak (gastu inbentariaezinak), proiektua garatzeko behar-beharrezkoak diren zerbitzu profesionalak hirugarrenei ordaintzeko gastuak edo proposatutako jarduera egiteko sortzen diren gastuak.

b) Kontratututako langileen gastuak diruz laguntzeko, ezinbestekoa izango da pertsona horien dedikazioa beharrezkoa izatea proiektua garatzeko. Gastu horiek ezin izango dira erabili talde sustatzailea osatzen duten pertsonen ordainsarietarako.

Diruz lagundu daitezkeen gastuen eskuratzeko-kostua ezin izango da inolaz ere merkatuko balioa baino handiagoa izan.

4. Diruz lagundu ezin diren proiektuak

Oinarri orokor arautzaileetan jasotako ez gain, honako hauek ere ez dira diruz lagunduko:

a) Lehendik dauden egiturazko proiektu edo ideia publiko edo pribatuak, eta, beraz, berri-tzaileak ez direnak.

b) Ideien sari edo lehiaketak.

c) Oro har, aniztasun ideologikoa, erlijio-aniztasuna eta abar baztertzea dakarten proiektuak.

5. Eskaerak aurkeztea

5.1. Eskaerak deialdi hau ALHAOn argitaratu ondorengo egunetik 2024ko irailaren 30era arte aurkeztu ahal izango dira.

Eskaerak hemen aurkeztu beharko dira:

- Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa (<https://egoitza.araba.eus/es/>); horretarako, talde sustatzaile eskatzaileko pertsona batek ziurtagiri elektronikoa (Baq) eduki behar du aldez aurretik. Egoitza elektronikora sartzeko bideak zeintzuk diren eta entitate ziurtatzaile batek jaulkitako ziurtagiri elektronikoa non eskatu behar den jakiteko, jo <https://egoitza.araba.eus/es/egoitza-elektronikoa/ezagutu-egoitza/nola-sartu>.

Halaber, honako erregistro hauetan ere aurkeztu ahal izango da eskabidea:

- Gazteriaren Foru Erakundearen erregistroan: norberak edo behar bezala egiaztatutako ordezkari baten bidez, Gazteriaren Foru Erakundeak Gasteizko Landazuri kaleko 3. zenbakian dituen bulegoetan.

- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan ezarritako gainerako erregistroetatik edozein.

5.2 Pertsona eskatzaileek Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa eskuragarri dagoen inprimakian eskatzen den informazioa bete beharko dute, eta horrez gain, agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Administrazio agiriak:

1. Eskaera eredia (eskaera egoitzan aurkeztuz gero, ez da beharrezkoa eranstea).

2. Elkarreragingarritasunaren bidez egiaztatzeko baimena:

– Gizarte segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.

– Zerga betebeharrak egunean izatea. Betebehar horiek Arabako Foru Aldundiko Ogasun Sailarekin egiaztatuko dira.

– Araban edo Trebiñuko enklabean erroldatuta egotea (talde sustatzaileko pertsonen bi heren, gutxienez).

– Euskal Administrazioaren ordainketa pasabidearen bidez egiaztatuko den banku kontuaren titulartasuna, betiere kasuan kasuko banku erakundea pasabidean sartuta badago.

Elkarreragingarritasuna baimentzen ez bada, egoera hori egiaztatzen duten dokumentuak aurkeztu beharko dira.

b) Agiri espezifikoak:

1. Proiektuaren garapen fitxa, egitura honekin:

– Proiektuaren izena.

– Helburuak eta adierazleak.

– Jardueraren edo jardueren garapena

– Proiektuaren kronograma: hasiera data, amaiera data eta proposatutako jardueren ordu-tegiak.

– Proiektua zer herritan garatuko den.

– Hartzaileak, publikoa.

– Proiektuaren garrantzia eta izaera berritzailea.

– Gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren tratamendua proiektuaren garapenean, neurriak adierazita eta deskribatuta.

– Proiektua hedatzeko moduak. Gizarte eraginaren proiektzioa edo irismena.

– Proiektuaren aurrekontu xehatua, gastu eta diru sarrera kontzeptuak eta finantzaketa iturriak adierazita.

– Proiektua ebaluatzeko matrizea, helburuei eta adierazleei dagokienez.

2. Proiektua garatzeko edo gauzatzeko aurrekontua. Aurreikusitako gastuak eta diru sarrerak.

Proiekturik garatuena, garapen- edo gauzatzeko aurrekontuarekin batera (aurreikusitako gastuak eta diru-sarrerak), egoitzari erantsiko zaio, pdf artxiboan, eta gutxienez 11 puntuko letratamainan egingo da, 25 orrialde gainditu gabe.

Dirulaguntzak eskuratzeko eskaerak aurkezteak esan nahi du oinarri orokorretan eta deialdi honetan ezarritakoa formalki eta berariaz onartzen dela.

Eskabidea elektronikoki erregistratu beharko du, taldekoa bada, taldeko arduradun batek.

Aukeran, eskaerarekin eta proiektuaren garapenarekin batera, gehienez 2 minutuko bideo eskematiko bat aurkeztu ahal izango da egoitzan, garatu nahi den proiektua azaltzeko. Bideo hori ez da 10 MB baino gehiagokoa izango eta ez du 30 MBko transmisio osoa eragingo.

6. Aurrekontu baliabideak eta dirulaguntzaren zenbatekoa

Horretarako, hogeita hamar mila (30.000,00) euro zuzendu dira, Gazteriaren Foru Erakundearen 2024rako aurrekontu proiektuaren 71100. G/232751/48000752 Berrikuntza proiektutarako diru-laguntzak. Gazteak aurrekontu partidaren kargura. Dirulaguntzak emateko, ezinbestekoa da kreditu egokia eta nahikoa egotea dirulaguntza ematea ebazten denean.

Baliozkotutako proiektu bakoitzeko dirulaguntza 5.000,00 eurokoa izango da gehienez, eta 1.000,00 eurokoa gutxienez.

Beste zenbateko bat gehitu ahal izango da, gehienez ere hamar mila eurokoa, betiere aurrekontu kreditua badago. Gehieneko zenbatekoa handitzeko ebazpena ALHAOn argitaratuko da; argitaratzeak ez du esan nahi epea zabaltzen denik eskaera berriak aurkezteko, ez eta ebazteko epea berriro hasten denik ere.

AURKEZTUTAKO PROIEKTUETAN EBALUATU BEHARREKO ALDERDIAK	PUNTUAZIOA
Proiektuaren originaltasuna eta garrantzia	30
Proiektuaren diseinua eta garapenaren kalitatea	25
Gizarte eraginaren azterlana eta proiektuaren hedapena	15
40000 biztanle baino gutxiagoko herrietarako pentsatutako landa proiektua da	15
Talde izaera, proiektuan batera parte hartzea	10
Nola ari den gauzatzen ebaluatzeko irizpideak	5

Gutxienez 50 puntu lortu beharko dira proiektua baliozkotu eta, beraz, diruz lagundu ahal izateko. Dirulaguntzaren zenbatekoa baremo hauen arabera izango da:

56-60 puntu	1.000,00 euro
61-70 puntu	2.000,00 euro
71-80 puntu	3.000,00 euro
81-90 puntu	4.000,00 euro
91-100 puntu	5.000,00 euro

7. Balorazio batzordea, batzorde teknikoa eta ebazpena

Proiektu bakoitza eskaera aurkeztu eta berehala aztertuko da, eta berariaz begiratuko da eskatutako gutxienerako puntuazioa lortzen duen. Horretarako, batzorde tekniko bat sortzen da, gutxienez Gazteriaren Foru Erakundearen teknika- eta agiriaren kudeaketako teknika-riez osatua. Batzorde horretan, Gazteriaren Foru Erakundearen zuzendaritzak izendatutako beste pertsona batzuek parte hartu ahal izango dute, aditu gisa. Batzorde tekniko horrek proiektu bakoitzaren bideragarritasuna aztertuko du 5.2 atalean aurkeztutako dokumentazioaren arabera, eta azterketaren emaitzaren berri emango dio balorazio batzordeari.

Oinarri arautzaileetan aurreikusitako balorazio batzordeak, deialdian ezarritako irizpideen arabera eta batzorde teknikoak aurrez egindako txostena ikusita, dirulaguntza emateko edo/eta ukatzeko proposamenaren txostena igorriko dio, gehienez ere hamabost eguneko epean, Gazteriaren Foru Erakundearen zuzendari-kudeatzaileari, ebazpena eman dezan.

8. Onuradunen betebeharrak

Hauek dira onuradunek izango dituzten betebeharrak:

- a) Aurreikusitako proiektua edo programa gauzatzeak ekar litzakeen erantzukizun guztiak bere gain hartzea.
- b) Arabako Gazteriaren Foru Erakundearen adostasunik izan gabe, dirulaguntzaren xede den programa ez aldatzea.
- c) Arabako Gazteriaren Foru Erakundeak egoki iriztitako egiaztapen eta jarraipen jarduketak onartzea.
- d) Jendaurreko publizitatean, komunikazio egintzetan eta erakusketetan adieraztea proiektua, programa edo jarduera Arabako Gazteriaren Foru Erakundearen laguntzarekin egiten dela.
- e) Sexuagatik, jatorriagatik, erlijioagatik... erabilera diskriminatzailezik ez egitea, ez hizkuntzan, ez eta proiektuarekin, programarekin edo jarduerarekin lotutako publizitatearen irudian eta komunikazioan ere.
- f) Proiektu, programa edo jarduerarekin zerikusia duten publizitatean eta komunikazioan euskararen erabilera normalizatzeko irizpideei jarraitzea..

9. Dirulaguntza ordaintzea

Laguntza bi zatitan ordainduko da. Ehuneko 70 aurrerakin gisa ordainduko da laguntza ematean, eta gainerako ehuneko 30a hurrengo atalean zehazten den memoria aurkeztutakoan. Justifikazio memoria aurkezten ez bada, aurreratutako zenbatekoa itzuli beharko da, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauan zehazten diren baldintzetan.

Hauek izango dira dirulaguntza emateko eta horren zenbatekoa zehazteko balioespen irizpideak:

- a) Diruz lagundutako ehuneko ezin izango da proiektuaren aurrekontuaren ehuneko 70 baino handiagoa izan, eta, edozein kasutan, 5.000,00 euro emango dira gehienez ere.
- b) Eskaerak balioetsi eta 1.000,00 eurora heltzen ez diren eskaerei ez zaie dirulaguntzarik emango, 50 puntu baino gutxiago lortzeagatik.

10. Dirulaguntza justifikatzea

Gehienez ere 2024ko azaroaren 15erako, egun hori barne, onuradunek deialdiak diruz lagundutako jardueren amaierako memoria aurkeztu beharko dute, egoitza elektronikoaren bidez, Gazteriaren Foru Erakundeak emango duen eredia erabilita. Memoria horrek gutxienez honako eduki hauek izango ditu:

- a) Egindako jardueraren memoria zehatza, honakoak zehaztuko dituen: data, parte hartzaileak eta jarduerak non egin diren eta jardueren balorazio orokorra. Hala badagokio, proiektua garatzeko sortutako zabalkunde materialak aurkeztuko dira.
- b) Laburpen ekonomikoa:
 - Jarduerak sortutako gastuen eta sarreraren balantzea (izandako gastuak eta sarrerak deskribatuta, baita jasotako beste dirulaguntza edo laguntza batzuk ere).

– Gastuen fakturak edo egiaztagiriak, jarduerak egitearen gastuen zenbateko osoa adierazten dutenak.

• 400,00 euro baino gehiagoko gastuen fakturak aurkeztuz gero, ordainduta daudela egiaztatatu beharko da.

• 400,00 euro baino gutxiagoko gastuen fakturak aurkeztuz gero, gastuen justifikazio sinplifikatua aurkeztu beharko da, honako datu hauek jasota: data, hornitzailea, kontzeptua, zenbatekoa eta ordainketa data.

c) Langile gastuen justifikazioa:

Soldatapeko langileak edota profesionalak kontratatuz gero, nahitaezkoa izango da haiek kontratatzeak eragiten dituen gastuen justifikazioa eta ordainketa aurkeztea.

Langilearen edo soldatapekoen lan egoera zehaztu beharko da, honako hauek jasotzen dituen taula bat aurkeztuz: langileak, dedikazio denbora, hilabetea, soldata likidoa, PFEZren atxikipena, langileen gizarte segurantzaren zenbatekoa, enpresaren gizarte segurantzaren zenbatekoa eta guztizkoa.

Era berean, erakundeak kontratatutako pertsona proiektuari atxikita egon del aldiko jatorrizko nominak edo kopia konpultsatuak aurkeztu beharko dira. Hauetako edozein onartuko da soldatak ordaindu izanaren frogagiritzat:

– Jatorrizko nominak, langileak sinatuta.

– Langileak izenpetutako jatorrizko idazkia, adierazten duena langileak zenbatekoa kobratu duela, dagokion hilabeteagatik.

– Nominen ordainketa multzokatuaren jatorrizko banku laburpena eta, horrekin batera, enpresa/entitate onuradunaren ziurtagiria, zehazten duena langileen nominak transferentzia horren kontra ordaindu direla eta adierazten duena langile bakoitzari aurkeztutako hilabete bakoitzeko zein kopuru dagokion.

Horrez gainera, nahitaez aurkeztu beharko dira gizarte segurantzaren RLC ereduak (kotizazio likidazioen ordainagiria) eta RNT ereduak (langileen izen zerrenda), bai eta dagozkien kotizazioak ordaindu izana frogatzen duten agiriak ere.

11. Dirulaguntzen bateraezintasuna

Bat etorritik Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak 18. artikuluan ezarritakoarekin, dirulaguntzen zenbatekoa, bakarrik edo beste dirulaguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin batera, ezingo da inoiz diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa izan.

Dirulaguntza emateko ebazpena aldatu ahal izango da, baldin eta dirulaguntza emateko kontuan hartutako inguruabarrak aldatzen badira, edota diruz lagundutako jardueraren kostua gainditzen duten beste ekarpen batzuk lortzen badira aldi berean.

12. Publizitatea

Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da.

13. Proiektuak hedatzea

Arabako Gazteriaren Foru Erakundeak beretzat gordetzen du diruz lagundutako proiektuak bere web orrian eta sare sozialetan argitaratzeko eskubidea. Egileek argitalpena beren kontura egin nahi badute edo beste deialdi, lehiaketa edo erakunde batzuetan aurkeztu, berariazko baime eskatu beharko diote Arabako Gazteriaren Foru Erakundeari, eta, nolana ere, adierazi beharko da Gazteriaren Foru Erakundeak alde aurretik diruz lagundu diela.

Gazteriaren Foru Erakundearen webgunea eta Infogaztearen sare sozialak gazteen ideia eta proiektu horiek zabaltzeko erabili ahal izango dira, eta, batzuetan, hasierako proiektuaz gain ikus-entzunezko material osagarriak sortu ahal izango dira, jarraipena egiteko, proiektuen inpaktu soziala handitzeko eta haien ebaluazioa egin ahal izateko.

Deialdi honetan parte hartzen dutenek deialdian adierazitako baldintzak onartzen dituzte eta berariaz men egiten diete baldintza horiei.

Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko, mugatzeko eta transferitzeko eskubideak baliatu ahal izango dituzte, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduak aitortzen duenez. Horretarako, helbide elektronikoa honetara jo beharko dute: dpo.ifj@araba.eus.

14. Azken klausula

Oinarri orokorretan eta deialdi honetan xedatu gabekoari dagokionez, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko 11/2016 Foru Arauak arautuko du, bai eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta aplikatu beharreko gainerako arauak ere.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko abenduaren 28a

Gazteriaren Foru Erakundearen zuzendari-kudeatzailea
JUAN JOSE ROJO BAZÁN